



**Arartekoaren 2019R-597-19 Ebazpena, 2019ko azaroaren 6koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari gomendatzen zaio ebalua dezala Ordiziako haur eta lehen hezkuntzan funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako jada onartu diren plangintza-erabakiek zer eragin izan dezaketen, eta neurri zuzentzaileak har ditzala ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean, oreka handiagoa sustatzen laguntzeko.**

### Aurrekariak

#### **0. Ordizian hezkuntza-sistema**

Ordizia 10.000 biztanletik gorako udalerria da eta horietatik % 17 atzerritarrak dira.

Hezkuntzaren eremuan, zehazki Lehen Hezkuntzaren mailan, Ordizian ikasleen % 21,7k jatorri atzerritarra du. Udalerririk 2 ikastetxe ditu maila horretan; bata publikoa (Urdaneta HLHI) eta bestea pribatu hitzartua (Jakintza Ikastola HLBHIP). Ikasleak eskolatzean desorekak nabarmenak dira.

lido horri jarraikiz, Ordiziako ikasle guztiak batera hartuta, bertako ikasleen % 41,5 ikastetxe publikoan eskolatuta dago; bien bitartean, % 58,5 ikastetxe hitzartura doa. Ikasle atzerritarren kasuan, ordea, ikasleen % 87,1 ikastetxe publikoan eskolatuta dago eta bakarrik % 12 ikastetxe hitzartuan.

Ikastetxeei dagokienez, Urdaneta HLHIk bertako ikasleen % 64 du eta ikasle atzerritarren % 36. Bestalde, Jakintza Ikastola HLBHIPko ikasleei erreparatzen badiegu, % 94 bertakoak dira eta bakarrik % 5,8 atzerrikoak.

Komenigarria da argitzea datu horiek erakundeari kexagileek eskuratu dizkietela, baina ez da iturria ageri. Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Sailak berak 2018ko urrian *“Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak”* izenburupean argitaratutako txostenean onartzen du, besteak beste, Ordiziako ikastetxean atzerriko ikasleen ehuneko handiak eskolatzen dituztela eta, noski, Urdaneta HLHI aipatzen ari da.

#### **1. Kexa sortzen duten administrazio-jarduerak**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko apirilaren 27ko aginduak dei egiten du 2016-2017 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako hezkuntza-itunak berritzeko eta itun berriak izenpetzeko. Horrek berariaz xedatutakoaren arabera, urtero ikastetxe itunduek aldeztu aurretik onartutako plangintza aldatzea eska dezakete (3.2. artikulua).





Hain zuzen ere, hau da aurreikuspena Jakintza Ikastola HLBHIPk plangintzaren eta itunaren eremuetan hartutako erabakiak funtsatzeko.

### **1.1. 2018-2019 ikasturterako plangintza eta itun berriak izenpetzea**

2017ko urriaren 30ean EHAAn Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2017ko urriaren 4ko ebazpena argitaratu zen eta horren bidez 2018-2019 eta 2021-2022 ikasturteetarako plangintza aldatu eta itun berriak izapidetzeari begira eskaerak aurkezteko epea ireki zen.

Eskaerak aurkezteko epearen barruan, Jakintza Ikastola HLBHIPk 3 urtekoen mailan planifikatutako taldeen kopurua handitzea (ikasgela berria irekitzea) eskatu zuen.

Eskaera ezetsi zen, hasieran, behin-behinekoz eta, geroago, behin betiko (2018ko martxoaren 12ko agindua, Hezkuntza sailburuarena, 2018-2019 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako plangintza eta itun berriak izenpetzea ebatzen duena – 2018ko apirilaren 3ko EHAA), Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzaren txostenean oinarrituta. Izan ere, hala zioen:

*“no procede modificar la planificación de Jakintza ikastola dado que aumentaría el desequilibrio de los centros existentes en Ordizia, ni la del centro público, para no crear excesivas plazas libres sólo en el centro público. Sin embargo, si en ejercicios posteriores persistiera la demanda a favor de Jakintza ikastola habría que reconsiderar esta decisión aumentando el número de grupos”.*

Txostenaren edukia honako testuinguruan azaltzen da: Jakintza Ikastola HLBHIPk planteatutako eskaeraren behin betiko ebazpenaren zain egonda, 2018-2019 ikasturterako onartze-eskaeren lehenengo datuak ezagutu ostean, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan hainbat idazki erregistratu zirela eta eskaera desberdinak zituztela. Horietako bitan (Jakintza ikastolako zuzendaritzak eta beren seme-alabek erakunde horretan ikastea interesa zuen familia taldeak egindakoetan) 3 urtekoen mailan ikastetxean planifikatutako taldeen kopurua handitu behar zela azpimarratzen zen. Hirugarren idazki batean (Urdaneta HLHiko zuzendaritzak eta gurasoen elkarteak aurkeztutakoan) ikastetxe publikoaren 3 urtekoen mailan programatutako unitateak zabaltzeko antzeko neurria eskatzen zen.

Aurrerago, hartutako erabakiarekin ados ez zegoenez, Jakintza Ikastola HLBHIPk aukerako berraztertze errekurtsoa planteatu zuen eta ezetsi egin zen, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak azaldu zituen argudio berdinetan oinarrituta.





## **1.2. 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesua eta Jakintza Ikastola HLBHIPn matrikula berriak baimentzea**

Onarpen-prozesua Hezkuntza sailburuaren 2018ko urtarrilaren 15eko aginduarekin bat garatu zen. Horren bidez, onarpen eskaerak eta epeak aurkezteko egutegi bateratua ezarri ziren eta 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko jarraibideak onetsi ere bai (10. EHAA, urtarrilaren 15ekoa).

Egutegia honako hau zen:

- a) Eskaerak eta egiaztapen-dokumentazioa entregatzea: urtarrilaren 29tik otsailaren 9ra.
- b) Eskatzaileen zerrenda argitaratzea: otsailak 20.
- c) Behin-behineko zerrendak argitaratzea: martxoak 1.
- d) Behin-behineko zerrendatan erreklamazioak: martxoaren 14ra arte.
- e) Eskaerari uko egitea: martxoaren 14ra arte.
- c) Behin betiko zerrendak argitaratzea: martxoak 22.
- g) Bigarren eta hirugarren aukerekin zerrendak argitaratzea: apirilak 11.

Martxoaren batean behin-behineko zerrendak argitaratu ziren eta Jakintza Ikastola HLBHIPn onartuak izateko 13 eskatzaile itxarote-zerrendan zeudela ezagutu zen. Lehenengo emaitzak ziren, baina, geroago, behin betiko zerrendak argitaratu zirenean (martxoak 22), berretsi ziren.

13 eskatzaile horiek beren eskaeratan idatziz jasota utzi zuten bigarren aukera bezala Lazkaoko San Benito Ikastola HLBHIP (12) eta Beasaingo Beasain Ikastola HLBHIP (1). Inork ez zuen aukeratu, ezta hirugarren aukera gisa ere Urdaneta HLHI. Horregatik, apirilaren 11n plaza ikastetxe horietan esleitu zitzairen, bigarren aukera modura hautatuak baitzituzten.

Onarpen-prozesuaren azkeneko izapidea egin baino lehen, ordea, Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendariak idazki bat bidali zion Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzari. 2018ko martxoaren 27an erregistratu zen eta itxarote-zerrendan gelditu ziren ikasleak bere ikastetxean matrikulatzea eskatzen zuen. Ikastetxeko zuzendaritza, xede horrez, ikasgela berria antolatzeke baimenaz baliatu zen, nahiz eta hori ikastetxeko gurasoek eta langileek finantzatu behar zuten. Ondorioz, itunaren bidez finantzaketa publikorik ez zuten izango.

2018ko maiatzaren 10ean Gipuzkoako Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzak ikasleak matrikulatzea baimendu zuen.





### **1.3. 2019-2020 ikasturterako plangintza eta itun berriak izenpetzea**

2018ko urriaren 31n EHAAn Hezkuntza Sailaren Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen 2018ko urriaren 4ko ebazpena argitaratu zen eta horren bidez 2019-2020 eta 2021-2022 ikasturteetarako plangintza aldatu eta itun berriak izapidetzeari begira eskaerak aurkezteko epea ireki zen.

Eskaerak aurkezteko epearen barruan, Jakintza Ikastola HLBHIPk Haur Hezkuntzan planifikatutako taldeak gehitzea eskatu zuen. Bat, 4 urtekoen mailan (planifikatu eta itundu gabe dagoeneko baimendua zuen taldea hartzeko) eta, bestea, 3 urtekoen mailan (berriz ere onespren-prozesuan eskaera-kopurua garrantzitsua aurkeztea aurrez ikusten baitzen).

2018ko abenduan Ikastetxeen Zuzendaritzak 4 urtekoen mailari zegokion eskaeraren aldeko txostena egin zuen. 3 urtekoen mailari buruzko eskaera, berriz, 2019-2020 ikasturterako onespren-eskaeren egiazko datuak ez ezagutu arte behin-behineko ezestea proposatu zuen.

Ondoren, Jakintza ikastolako zuzendaritzak erreklamazioa egin zuenean eta 2018-2019 ikasturterako ikasleak onesteko prozesuan datuak ezagutu zirenean, Ikastetxeen Zuzendaritzak bere iritzia berriz pentsatu eta Jakintza Ikastola HLBHIPn 3 urtekoen mailan unitate bat gehitzearen aldeko txostena egin zuen.

Erabakia berresteko, Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 21eko agindua argitaratu zen eta 2019-2020 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako plangintza aldatu eta itun berriak izenpetzea ebatzi zen (2019ko apirilaren 10eko HEAA).

Aginduari akatsak zuzendu behar izan zitzaizkion eta maiatzaren 28ko EHAAn argitaratu zen. Ezinbestekoa da ohartaraztea, zuzenketa ezagutu ostean, Urdaneta HLHIko zuzendariak eta gurasoen elkarteko buruak 2019ko ekainaren 10ean idazki bat bidali zietela Hezkuntza Saileko arduradun gorenei (Hezkuntza sailburua eta sailburuordea). Horren bidez, gehitze horiek ikuskatzea eskatzen zitzairen, erabakiak udalerriko ikastetxeen artean desoreka areagotzen laguntzen zuelakoan.

Nolanahi ere, Jakintza Ikastola HLBHIPko unitateak bitan gehitzearen erabakia 2019-2020 ikasturterako itundutako unitateak zehazteko aurkeztu diren eskaerak izapidetzean berretsi da eta, horretarako, Hezkuntza sailburuaren 2019ko irailaren 11ko agindua argitaratu da (irailaren 27ko EHAA).



## 2. Kexa modura sortutako gaiak

Kexagileek Arartekora jo zuten lehenengoz 2019ko apirilean eta argi eta garbi zalantzan jarri zituzten hezkuntza-administrazioaren erabakiak, hau da, epez kanpo Haur Hezkuntzako ikasle-talde bat tokiz aldatu eta Jakintza Ikastola HLBHIPn matrikulatzea eta 2019-2020 ikasturterako bi ikasgela berri ituntzea. Beren iritziz, erabaki horiek Ordiziako udalerrian azkeneko urteetan gertatzen ari den eskola-banaketaren arazo garrantzitsua areagotzen dute.

Ondoren, espedientea izapidetzen zen neurrian, kexagile berdinek erakunde honen aurrean salatu dute hezkuntza-administrazioak dokumentu zehatzak (hartutako erabakiekin zerikusia zuten txostenak eta ebazpenak) ukatu dizkietela eta ez dela ebatzi Urdaneta HLHIko zuzendariak nahiz gurasoen elkarteko buruak Hezkuntza Saileko arduradun gorenei (Hezkuntza sailburua eta sailburuordea) 2019ko ekainaren 10ean aurkeztutako idazkia.

Amaitzeko, kexagileek erakunde honi Urdaneta HLHIko ordezkartza-organo gorenak sinatutako txostena entregatu diote. Helburua Hezkuntza Sailak hartutako erabakiak balioztatzeko txostena egitea eta ikasleen banaketa-egoera bideratzen saiatzeko neurri zuzentzaileak proposatzea da. Hain zuzen, hori eskatzen diote Arartekoari.

### Gogoetak

#### 1. Kexa sortu duten administrazio-erabakien inguruan

##### ***1.1. 2018-2019 ikasturterako plangintza eta itun berriak izenpetzea***

Arartekoaren ustez, 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko ohiko prozesuak argi utzi zuen Ordiziako udalerrian funts publikoekin eutsitako ikastetxeetan Haur Hezkuntzan 3 urtekoen mailan programatutako plazak nahikoak ez zirela.

Hain zuzen, Hezkuntza Sailak berak eskuratutako datuekin bat, prozesu hura egin zenean, Jakintza Ikastola HLBHIPk (onartutako plangintzan D ereduaren barruan 3 urtekoen 2 ikasgela zituen) bakarrik 16 plaza zituen libre, gainerako 34 plazak 2 urtekoen ikasleentzat baitziren, ikastetxean alde zuzenetik eskolatuak baitzeuden. Nolanahi ere, lehendik ikastetxean jarraitzea ziurtatzeko konpromisoa hartuta zegoen.





Onespen-prozesuan 3 urtekoen mailarako Jakintza Ikastola HLBHIPk guztira 29 eskaera jaso zituen, hau da, planifikatu eta itundutako plaza guztiak baino 13 gehiago, aipatu den bezala, bakarrik 16 plaza baitzituen libre.

Bestalde, Urdaneta HLHIk B ereduko ikasgela bat eta D ereduko bi zituen. Azkenekoen kasuan, 2018-2019 ikasturterako matrikula-aplikazioaren arabera, planifikatutako plaza guztietatik, 42 hartuak zeuden; bien bitartean, 4 hutsik gelditu ziren.

Arestian azaldutakoari jarraikiz, Arartekoaren iritziz, datu horiek guztiek Ordiziako udalerrian programatutako plangintza 3 urtekoen mailan udalerrian bizi diren familien eskolatzeko beharrei erantzuteko nahiko ez zela frogatzen dute. Urdaneta HLHIIn hutsik gelditu ziren plazak ere ez ziren nahikoak (nahiz eta hori Jakintza Ikastola HLBHIPn seme-alabak eskolatu nahi zituzten familia interesdunentzat aukera inoiz ez izan) familien eskolatzeko eskariari aurre egiteko.

Dena den, programazioaren gabezia onarpen-prozesuan bertan konpondu zen, ikasle horiek Ordiziako inguruko udalerrietan, bigarren aukera gisa eskatutako ikastetxeetan (Lazkaoko San Benito Ikastola HLBHIP eta Beasaingo Beasain Ikastola HLBHIP), eskolatzeko aukerari esker.

Gaiari eutsiz, erakunde honen iritziz, garrantzitsua da ondorengo hau azpimarratzea: testuinguru honetan Ordiziako bi ikastetxeetako (Jakintza ikastola eta Urdaneta) zuzendaritzek eta familiek unitateak gehitzea eskatu zutela kontuan hartuta, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak, Ordizian dauden ikastetxeen desoreka areagotzearen beldur izanik, une horretan plangintzan aldaketa zekarren erabakirik ez zuela hartu eta ohiko onespen-prozesua garatzen utzi zuela. Hala ere, dagoeneko bere iritzia aurreratu zuen: *"si en ejercicios posteriores persistiera la demanda a favor de Jakintza ikastola habría que reconsiderar esta decisión aumentando el número de grupos"*.

### **1.2. 2018-2019 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesua eta Jakintza Ikastola HLBHIPn matrikula berriak baimentzea**

Jakina denez, hezkuntzarako eskubidea eraginkortasunez erabiltzen dela bermatzeko konpromisoa eta, bereziki, familiek beren seme-alabentzat ikastetxea hautatzeko onartutako aukera hezkuntza-programazioak baldintzatzen ditu.

Illo horri jarraikiz, ikasleak onartzeko prozesuek ezinbestez erreferentzia bezala hartu behar dute eskola-plazen aurretiazko plangintza, ez bakarrik hezkuntza-administrazioen mende dauden ikastetxe publikoetan, baita funts publikoekin eutsitako ikastetxe pribatuetan ere. Nolanahi ere, azkenekoak ituntzen dira





hezkuntza-zerbitzu publikoa eskaintzen laguntzeko eta, ondorioz, onespenez arau berdinak jarraituz behartuak daude.

EAEn gaiaren inguruan onartutako araudia, bai Estatuaren eremuko oinarrizko araudia (LOMCE) garatzeko dena, bai Erkidegoaren beraren legedia (Euskadiko eskola publikoari buruzko legea), ikastetxea hautatzeko aukeren eta ikastetxe pribatuekin itundutako eskaintzak sartu behar dituen hezkuntza-plangintza edo -programazioaren arteko lotura estuaren adierazle leiala da. Zehatz-mehatz esanda, 1/2018 Dekretuaz, urtarrilaren 9koaz, ikasleak onartu eta eskolatzeari buruzkoaz, (urtarrilaren 12ko 9. EHAA) eta 21/2009 Dekretuaz, otsailaren 3koaz, EAEn eremuan unibertsitatekoa ez den sarearen antolamendu- eta plangintza-irizpideak xedatzen dituenaz, (otsailaren 12ko 30 EHAA) ari gara.

Gainera, EAEn kasuan, hezkuntza-agintariek hezkuntzarako eskubidea eraginkortasunez erabiltzen dela bermatzeko hartutako konpromisoaren ondorioz, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxe publikoek zuzenean onartzen ez duten hezkuntza-eskaintza ia oso-osorik itundu dute. Aurrekoaren harira, ia ez dago hezkuntza-zerbitzuak eskaintzen dituen ikastetxe pribaturik itundu gabe.

Modu horretan, EAEn elkarrekotasun ezin hobea dago Hezkuntza Sailak programatutako plangintzaren eta onarpen-prozesuak egin ondoren, ikastetxeek matrikulak kudeatzeari artean, are gehiago, ikastetxe itunduen kasuan, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxe publikoen aldean, plangintza ez baita hain malgua, horren arabera finantzaketa dela kontuan hartuta.

Horrengatik guztiarengatik, erakunde honen ustez, Jakintza Ikastola HLBHIPn 2018-2019 ikasturterako ikasleak onesteko prozesuan ikastetxean bertan plaza lortu ez zuten adingabeen matrikulazioa baimentzea jarduteko moduan benetan salbuespena da eta hori baieztatzeke moduan gaude. Horrez gain, erabaki hau, hau da, ikasle horiek matrikulatzeko baimena ematea, ez da erabaki axolagabea suertatu, plangintzaren erabaki berriak hartzean modu garrantzitsuan eragin baitu.

Azkenekoaren ildotik, hots, onartzeko ohiko prozeduratik kanpo ikasleak Jakintza Ikastola HLBHIPn matrikulatzen uztearen salbuespeneko erabakiari eutsiz, erakunde honek hainbat gogoeta egin behar ditu.

Batetik, Arartekoaren iritziz, hezkuntza-administrazioa ez da matrikulazio batzuk baimentzera behartuta egon, kontra egin ez zezakeela ulertuta; ikastetxeak dagoeneko administrazio-baimena baitzuen.

Ikastetxe pribatuetan matrikulatzeari dagokionez, 1/2018 Dekretuak, urtarrilaren 9koak, bakarrik hurrengoak xedatzen du: itundu gabeko ikastetxe pribatuek eta EAEn kokatzen diren atzerriko ikastetxeek hezkuntzaren arloan sail aginpidunari,



horrek zehaztutako moduan eta epeetan, eskuratuko dizkiotela ikastetxeetan matrikulatutako ikasleen datuak, ikasle horien prozedura akademikoak eta administrazio-prozedurak behar bezala izapidetzeko beharrezkoak badira (hirugarren xedapen gehigarria). Arartekoaren ustez, komunikazio hutsa besterik ez da, ez dago baimena eskatu beharrik.

Horregatik, erakunde honen iritziz, Jakintza ikastolaren zuzendaritzak hartutako erabakiak faktuzko errealitatera garamatza, ikastetxeak berak eragin ondoren. Hala, Hezkuntza Sailak programatutako plangintzarekin bat ez datozen matrikulak formalizatu dira. Hala eta guztiz ere, errealitate horrek ez du hezkuntza-arduradunen partaidetzarik (aurretiazko baimena) eskatzen, baina, noski, ikastetxearen finantzaketa-aukeretan ondore argia izan du, itunak dituen laguntza ekonomikoak ezin baititu eskuratu eta, ziurrenik, ezin izan baitie ziurtatu kaltetutako familiei irakaskuntza doakoa suertatuko zaienik.

Bestalde, bigarren gogoeta bat aipatu nahi dugu. Arartekoak uler dezake Hezkuntza Saileko arduradunen iritziz erabakiaren aurka ezin zela egin (espedientea izapidetzen aritu diren bitartean egin duten bezala), ondore bakarrak goian komentatu diren horiek baziren. Baina, lehen azaldu dugun bezala, ez gaude erabaki axolagabearen aurrean, ondoren hartu diren erabakiak justifikatzeko erabili delako.

### ***1.3. 2019-2020 ikasturterako plangintza eta itun berriak izenpetzea***

Hezkuntza Sailak, hasieran zati batean ezetsi ostean, azkenik, 2019-2020 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako aurrez ikusitako plangintza aldatu eta itun berriak izenpetzeko Jakintza Ikastola HLBHIPk aurkeztutako eskaera onartu du.

#### ***1.3.1. 4 urtekoen maila***

Eskaeraren aldeko txostena egiteko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak eskainitako justifikazioari erreparatuz, maila horretan ikastetxean matrikulatutako ikasleen ratioak zabalki betetzen ditu otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuan finkatutako plangintza-irizpideak. Gainera, bere iritziz, gehikuntza horrek Eskolatze Batzordearen esku plaza libreak jartzea bultzatuko du. Nolanahi ere, erakunde honi jakinarazitakoaren arabera, sistematikoki ohiko onespren-prozesutik kanpo etortzen diren ikasle guztiak Urdaneta HLHIn eskolatzera behartuta dago (Hezkuntza Sailak berak helarazitako datuekin bat, 2018-2019 ikasturtean matrikula bizia kudeatzeko orduan, Urdaneta HLHik guztira 27 ikasle hartu ditu B ereduan eta 7 ikasle D ereduan. Bestetik, Jakintza Ikastola HLBHIPk 14 ikasle eskolatu ditu D ereduan).







Sailaren esanetan, aldaketa honekin Ikasle Etorkinentzako Hezkuntza Arretarako II. Planean dauden ekintza-lerroak jarraitu nahi dira.

Erakunde honek onartu behar du bi argudioei kontra egitea zaila dela, isolatuta kontuan hartzen badira eta gertatutakoaren testuinguruan kokatzen ez badira. Argudio berak erabil zitezkeen 2018-2019 ikasturtean antzeko erabakia hartzeko, baina, ez zen horrela egin, Hezkuntza Sailak halako erabakiak Ordiziako bi ikastetxeen artean desoreka areagotuko zuela ulertu baitzuen.

Erakunde honen ustez, horretan nolabaiteko kontraesana antzematen da. Batetik, 2018-2019 ikasturtean ez zen erabakirik hartu eta, bestetik, jarduneko ikasturtean 4 urtekoen mailan plangintza ikasgela batean gehitzea erabaki da. Gure ikuspegitik, erabakia aurreko ikasturterako Sailak defendatutako ikuspuntutik urrun dago eta, itxuraz, Jakintza Ikastola HLBHIPren zuzendaritzak behartu du, 2018-2019 ikasturterako 2018-2019 ikasturteko aurreko eskea onartzea lortu baitu. Ildo horri eutsiz, desoreka geldiarazten laguntzeari begira, hezkuntza-administrazioak beste plangintza-neurri batzuk hartzeko aukera ez du aztertu, ezta balioetsi ere.

Agian, 2018-2019 ikasturtean Sailak udalerriko ikastetxe publikoan eskaintza sendotzeko aukera hartu izan balu, familiek ikastetxea hautatzeko orduan aldaketak leudeke, beste udalerrri batera joatera behartuak egon ordez. Nolanahi ere, egoera hori 2018-2019 ikasturtean azkeneko orduan saihestu zen, ohiko onespenez-prozesutik at, itundutako ikastetxean matrikulatzeari esker.

Gure iritziz, Hezkuntza Saila, nolabait, hasieran udalerriko bi ikastetxeen arteko desoreka gehitzearen beldur zelako, Jakintza Ikastola HLBHIPri eskaera ezetsi arren, berak egindako analisitik aldendu da eta hezkuntza-plangintza egitean familien borondateak faktore erabakigarria izan behar duela pentsatu du. Ildo horri eutsiz, hala aipatu du behin eta berriz honako hau azaldu duenean: *"si en ejercicios posteriores persistiera la demanda a favor de Jakintza ikastola habría que reconsiderar esta decisión aumentando el número de grupos"*.

### 1.3.2. 3 urtekoen maila

Horrez gain, 2019-2020 ikasturterako ikasleen onarpen-prozesuari buruzko datuak ezagutzearen zain, hasieran ezetsi ondoren, Sailak beste modu batean pentsatu du 3 urtekoen talde berria planifikatzearen eskaerari buruzko erabakia, Jakintza Ikastola HLBHIPren zuzendaritzak formulatu ostean, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak egindako txostenean oinarrituta. Izan ere, hala dio:

*"siguiendo los criterios fijados en el Decreto 21/2009, de 3 de febrero, el número de solicitudes de ambos centros del municipio, 61 en Jakintza ikastola más 65 en Fray A. Urdaneta, obliga a planificar 6 líneas en el*





*municipio. Por tanto, propone tomar en cuenta la alegación de Jakintza ikastola y aumentar el número de grupos planificados en el nivel de 3 años para el curso que viene. De esta forma habría disponibilidad de plazas libres en ambos centros para la incorporación del alumnado fuera del periodo de matriculación por la Comisión de Escolarización".*

Era berean, aurreko erabakia justifikatzeko hurrengoaz baliatu da:

*"Cabe destacar que en cuanto a la planificación de plazas en función de los cambios demográficos, el Decreto 21/2009, de 3 de febrero,(...) en su artículo 5- Oferta de puestos escolares, no establece diferencias entre redes educativas, sino que establece que la oferta deber 'suficiente y adecuada' en cada circunscripción, garantizándose plaza en 'centros sostenidos con fondos públicos', y que 'se procurará que la oferta de plazas escolares se ajuste a las necesidades armonizando los intereses de las familias con la utilización óptima de los recursos, mediante una planificación responsable...'. Dentro de esta planificación responsable de puestos escolares hay que considerar indudablemente la necesidad de la existencia de plazas libres en todos los centros para que como dice el siguiente punto del decreto 'todos los centros sostenidos con fondos públicos sean corresponsables en la escolarización del alumnado que deba incorporarse al sistema educativo una vez comenzado el curso escolar'-*

*Asimismo, la Orden de 19 de diciembre de 2018, por la que se estima un recurso de alzada interpuesto contra una resolución de la comisión de escolarización, establece que el derecho a la elección de centro docente por parte de los padres sólo se puede ver limitado en el caso de los alumnos con necesidades específicas de apoyo educativo, máxime en el nivel de Educación Infantil donde la escolarización es voluntaria."*

Une hau egokia da Arartekoak idatziz jaso utzi nahi duena adierazteko. Lehenengo balioztapena egin ondoren, kexaren alderdi zehatz honetan sakontzea beharrezkotzat jo zuen. Datu gehiago eskatu zituen, besteak beste, 2018-2019 ikasturtearen hasieran Urdaneta HLHIn eskolatutako ikasleak, ikastetxe horretan matrikula-datuen bilakaera (matrikula biziaren-eskolatze berantiarren kudeaketa barne), plaza hutsen kopurua, eta abar.

Era berean, Hezkuntza Sailak erabilitako zenbait argudiori dagokionez, erakunde honek hainbat zehaztapen egin zituen, Jakintza ikastolan 3 urtekoen mailako talde kopurua gehitzearen erabaki hori egokia zela justifikatzeko asmoz. Ildo horri eutsiz, erakunde honentzat bidezkoa zen honakoaz ohartaraztea:





*“Eskolako plazen eskaintza dauden beharrei egokitzen saiatzeko hezkuntza administrazio horrek duen betebeharrari buruzko argudioaz ari gara, esaterako; hala, familien interesak baliabideen erabilera egokiarekin bateratuko dira plangintza arduratsu bat eginez. Gure ustez, argudio hori otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuaren 5. artikuluan agindutakoaren aipu bakan bat baino ez da, dagokion testuinguruan kokatu behar dena.*

*Honako hau babesten duen argudioaren kasua ere bada: funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztiek ikasleak ikasturtea hasi ondoren hezkuntza sisteman eskolatzeko arduradun izan behar dute. Erakunde honen aburuz, puntu honetan ez da aipatzen eta batez ere baloratzen ikasleak onartzeari eta eskolatzeari buruzko urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan jasotakoaren antzeko neurriek Ordizian izandako eragina; horri esker, ikasleak onarpen prozesu ohikotik kanpo eskolatzeko plaza kopurua handitu daiteke.*

*Bestalde, jakin nahi dugu hezkuntza administrazio horrek zergatik ahotara ekarri duen Balorazio Batzordearen ebazpen baten aurka jarritako errekurtsio bat puntualki baietsi izana, honako hau defendatzeko: gurasoek ikastetxea hautatzeko eskubidea soilik murriztu daitekeela hezkuntza laguntzaren berriazko beharrak dituzten ikasleak daudenean. Eta hori jakin nahi dugu erakunde honek badakielako, izapidetu diren kexa-espeditenteengatik, sail horrek gaur egun duen jardunbidea beste bat dela, hain zuzen, ikastetxeen arteko oreka handiagoa izan dadin ikasle immigrante gehiegi dagoen eremuetan, Ordizian, esaterako.*

*Baina batez ere, eta amaitzeko, azpimarratu behar dugu erakunde honek ez duela sumatu administrazio horrek iruzkin edo gogoetarik egin duenik Ordizian egun bizi den hezkuntza errealtatearen gainean; eta horrek, azken batean, hizpide dugun kexa eragin du: udalerrri horretako ikasleen artean sortzen ari den bereizketa”.*

Datuei erreparatuz gero, Hezkuntza Sailak azaldutakoaren arabera, 2018-2019 ikasturtearen hasieran Urdaneta HLHIK guztira 3 ikasgela zituen Haur Hezkuntzako 3 urtekoen mailan, bata B ereduan (11 ikasle matrikulatu) eta bi D ereduan (42 ikasle).

2019-2020 ikasturte honi dagokionez, Sailaren esanetan, 2 urtekoen hasierako mailan B ereduaren eskaintza desagertzeaz gain, 3 urtekoen mailan matrikulak arinki egin du gora eta 63 ikaslara iritsi da (53 D ereduan). Halaber, 4 urtekoen





mailan ere matrikula igo da, baina hazkuntzak ohiko onarpen-prozesuari erantzuten dio, ez matrikula bizia kudeatzeari.

Era berean, ondorengo hau zehaztu nahi izan du:

*“Se da la circunstancia de que el centro ha estado ofertando Modelos B y D, a diferencia de Jakintza ikastola que solo oferta Modelo D. Desde el proceso de matriculación del presente curso 2019-2020 sólo ofertará Modelo D para ir equilibrando la planificación y disponibilidad de plazas libres en ambos centros, ya que el Modelo B de Urdaneta, menos demandado, siempre cuenta con muchas más plazas libres que el Modelo D.”*

Amaitzeko, hurrengo azpimarratu eta azaldu nahi izan du:

*“Respecto a la etapa de Educación Primaria, a lo largo del curso 18/19 del CEIP Fray A. Urdaneta ha recibido 34 alumnos/as (27 para modelo B y 7 para modelo D), mientras que Jakintza Ikastola ha recibido 14, todas ellas en Modelo D, que es el único que oferta. Se constata, por tanto que el Modelo Lingüístico ofertado por cada centro es un factor determinante a la hora de hablar de la “segregación que se está produciendo entre el alumnado”, como menciona el Ararteko en su escrito (aunque no sea un término del agrado del que suscribe), y que debe tomarse en cuenta a la hora de analizar cualquier cambio en la planificación. De hecho, tal y como se ha apuntado más arriba, desde este curso 19/20 la oferta de ambos centros se realiza únicamente para el modelo D, con la intención de que el equilibrio en la disponibilidad de plazas sea el mayor posible.”*

Aurrerago, matrikula biziaren eredu eta kudeaketari eutsiko dizkiogu, baina oraingoz datuei erreparatuko diegu.

Hezkuntza Sailak 2019/2020 ikasturterako 3 urtekoen mailan adostutako plangintza-aldaketak justifikatzeko, udalerrian ikasleen ohiko onarpen-prozesuaren testuinguruan erregistratutako onespren-eskaerak aipatu ditu: *“udalerriko bi ikastetxeetan eskaerak”* (61 Jakintza Ikastolak HLBHIPn eta 65 Urdaneta HLHIn). Horrek azaldutakoarekin bat, errealitateak, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuak finkatutako irizpideak kontuan hartuta, udalerrian guztira 6 lerro planifikatzera behartzen dio.

Modu horretan, itxuraz, bi ikastetxeen artean oreka dago, baina, egiaz, ez da horrela gertatzen. 6 lerro planifikatuta, dagoeneko Urdaneta HLHIk zuen ikasgelakopurua mantendu da (hori bai, eskainitako hizkuntza-ereduak aldatu dira eta B ereduaren aurreko eskaintza desagerrarazi da) eta unitate batean gehitu da





Jakintza Ikastola HLBHIPn planifikatutako ikasgela-kopurua, 2 unitatetik 3ra pasa baita.

Praktikan, Sailak berak eskuratutako datuen arabera, berresten da Urdaneta HLHIn matrikulatutako ikasleen kopuruak hasierako mailatan aldaketa aipagarririk ez duela izan. Izan ere, 3 urtekoen mailan guztira 53 ikasle daude matrikulatuta D ereduan, 2018-2019 ikasturtean 2 urtekoen mailan matrikulatutakoak baino 4 gehiago besterik ez.

Jakintza Ikastola HLBHIPn, berriz, 3 urtekoen mailan ikasgela bat gehiago dago eta horri esker, onespren-prozesuan erregistratutako onarpen-eskaera guztiei erantzun ahal izan zaie. Aurrekoari jarraikiz, lehendik ikastetxean matrikulatutako bi urteko ikasleen jarraipena ziurtatzeaz gain, unitatea gehitzeagatik Jakintza Ikastola HLBHIPk udal-hautzaindegitik iritsi diren ikasle guztiak onartu ditu. Modu horretan, dagoeneko aurreko ikasturtean gertatutako egoera errepikatu da. Izan ere, urte hartan Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendaritzak ikastetxean plaza lortu ez zuten ikasleak matrikulatu zituen.

Laburbilduz, Jakintza Ikastola HLBHIP udalerriko bertako ikasleentzat (lehen udal-hautzaindegian eskolatutakoak) erreferentziazko ikastetxe gisa finkatu da. Bien bitartean, Urdaneta HLHIn ikasle atzeritarren kontzentrazioa berretsi da. Hezkuntza Sailaren erabakia bestelakoa (Urdaneta HLHIn unitate-kopurua gehitzea) balitz, ordea, agian, azkeneko ikastetxean tokiko biztanle gehiago kontzentratuko litzateke.

Bestalde, eredu eta matrikula bizia kudeatzeari dagokionez, azpimarratu behar da eredu-aldaketak bakarrik 2 urtekoen mailari eragiten diola, hau da, erabakitako eredu-aldaketak bakarrik hasierako mailan du eragina. 3 urtekoen mailatik aurrera (hori barne), Urdaneta HLHIk B eta D ereduak eskaintzen jarraitzen ditu. Beraz, oraingoz, eredu-aldaketak gutxi eragin dezake, edo batere ez, matrikula bizia kudeatzeko moduaren ondorioz izan diren ondoreetan, are gehiago, aurrerantzean, orain arte gertatu den bezala, familiei Urdanetako B eredura bideratzen jarraitzen bazaie.

## **2. Dokumentu zehatzak lortzeko eskaerari eta onartutako gehikuntzak ikuskatzeko 2019. ekainean aurkeztu zen idazkiari dagokionez.**

Kexagileek administrazio-dokumentazioa lortzeko interesa adierazi dute, hori aztertutako erabakien ondorioz sortu bada, baina, bereziki, honako dokumentuak lortu nahi izan dituzte:





- 2018-2019 eta 2021-2022 bitarteko ikasturteetarako plangintza eta itun berriak izenpetzeari buruzko Hezkuntza sailburuaren 2018ko martxoaren 12ko aginduaren aurka Jakintza ikastolako zuzendaritzak jarritako errekursoari erantzunez emandako ebazpena.
- 2018ko maiatzaren 10ean Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak emandako baimena Jakintza ikastolako zuzendaritzak itxarote-zerrendan zeuden ikasleak matrikula zitzaizkien.
- 2018-2019 eta 2019-2020 ikasturteetarako Jakintza ikastolaren zuzendaritzak eskatutako plangintza-aldaketen inguruan, Gipuzkoako plangintzako lurralde-arduradunek egindako txostenak.
- Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak gai berari buruz egindako txostenak.

Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak hasieran nahi hori ezetsi zuen, kexagileen eskaera Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen esparruan kokatu behar zelakoan eta horrekin beren interesdun izaera ukatu zien.

Bere esku-hartzearen jardunean, erakunde honen iritziz interesdunen nahia sakontzeko beste alderdi bat da.

Hala, erakunde honek, lehen balioztapen modura, Hezkuntza Saileko arduradunei hurrengo ohartarazpena helarazi zien: dokumentazioa eskuratzeko eskaera egitean, kexagileek urriaren 1eko 39/2015 Lege hori eskaeraren oinarri edo funts gisa erabiltzeaz gain, aldi berean, berariaz aipatu zutela Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea; horren bidez, pertsona guztiei aitortzen zaie informazio publikoa eskuratzeko eskubidea interesdunaren izaera bereziaren baldintzaren beharrik izan gabe.

Erakunde honi bidalitako erantzunean, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, zioen azalpenean sartutako iruzkinei hainbat aipamen egin ondoren, lege horrek berariaz aurrez ikusitako zenbait muga ekarri ditu gogora eta, nagusiki, adingabeei buruzko datuak gehiago bermatzeko haztapenari eutsi dio. Gainera, haur eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoaren eta datu pertsonalak babestu nahiz eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren aipamen orokorrera jo du. Horiek guztiekin honako hau ondorioztatu du:



*“Analizada la solicitud, el carácter de la información solicitada, no puede presuponerse que tenga vocación de publicación y carácter público, y corresponde a la Administración la salvaguarda de los datos contenidos en el expediente administrativo.*

*Por ello, cabe reiterar el análisis y encuadramiento normativo de la solicitud y cuando se trata del acceso a la información con relación a un expediente administrativo este supuesto ya ha sido desarrollado por otras disposiciones de nuestro ordenamiento jurídico como son la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y más concretamente en lo relativos al artículo 4 donde se acotan los interesados en un procedimiento administrativo y sobre todo artículo 53, relativos a los derechos de los mismos, supuesto ya analizado en la repuesta trasladada en el informe emitido por la presente Dirección el pasado 28 de junio” (sic)*

Egiaztatu den bezala, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak berriz azpimarratzen du kexagileen eskaera 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, xedatutakoaren eremura bideratu behar dela eta interesdunaren izaera ukatzen jarraitzen die.

Azkenekoari eutsiz, hau da, kexaren sorburu izanik, plangintza-erabakiak hartzeko izapidetu diren administrazio-prozeduratan kexagileak interesdunak al diren definitzeari erreparatuz, erakunde honen ustez, aztergaia ez da baketsua eta eztabaida sor dezake.

Hala eta guztiz ere, une honetan eztabaida ez da beharrezkoa, kexagileak legeztatuak baitaude, bere egunean Hezkuntza Saileko arduradunek ohartarazitakoari jarraikiz, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, 13 d) artikuluan informazio publikoa, fitxategiak eta erregistroak lortzeko eskubidea onartzen baitie, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak xedatutakoaren arabera.

Azkeneko legeak, 13. artikuluan informazio publikotzat ulertu behar dena xedatzen du: “informazio publiko dira jarduera publikoaren gardentasunari buruzko tituluak aplikazio-eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere”. Ondorioz, zalantza gutxi sor daiteke kexagileek eskatutako dokumentazioa informazio publikoa al den definitzean.

Dena den, egia da gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak datuak lortzeko eskubide horri hainbat muga jartzen dizkiola, hala nola, datu pertsonalak babestea eta arreta berezia jarri behar zaiola adingabekoen kasuan (15.3.d artikulua).



Baina, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko legeak berak onartzen duenez, aurreko mugak ez dira aplikatuko, baldin eta eskuratzeko aukera izaera pertsonaleko datuak bereiziz egiten bada; hala, pertsona ukituak ezingo dira identifikatu.

Hizpide dugun horri eutsiz, Arartekoak ondorioztatu behar du, interesdunek lortu nahi dituzten dokumentuen edukia ez ezagutu arren, beharrezkoa izanez gero, dokumentuak kexagileen esku jarri baino lehen bereiztearen lanak eragozpen handirik ez duela. Horrela, orain arte hezkuntza-administrazioak planteatutako oztopoak amaituko lirateke.

Onartutako gehikuntzak ikuskatzeari begira, Urdaneta HLHiko zuzendariak eta gurasoen elkarteko buruak 2019ko ekainaren 10ean aurkeztutako idazkiari erantzutearen inguruan, Arartekoaren iritziz nahikoa da 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, 21. artikuluan agindutako lege-oroimena planteatzea. Agindu horren arabera, administrazioak prozedura guztietan ezinbestez berariazko ebazpena eman behar du, jakinaraztearekin batera.

### **3. Desoreka-egoera berriz bideratzen saiatzeko neurri zuzentzaileei dagokienez**

Urdaneta HLHiren ordezkaritza-organo gorenak izenpetutako txostenean, aipatu den bezala, Arartekoari eskatu zaio Ordiziako udalerriko ikastetxeen artean dagoen desorekaren inguruan neurri zuzentzaileak proposa ditzan. Horri eutsiz, berariaz adierazi da behin eta berriz eskola-banaketari buruz erakunde honek egindako gomendioa.

Aurrekoaren haritik, eskola-ghettoak saihesteko eta gizarteratzea sustatzeko neurriak hartu behar dira. Gomendioa lehenengoz 2001. urteko txostenean sartu zuen *EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna* izenburupean eta urte batzuk geroago, 2007. urtean, alegia, *arrisku-egoera berezietan dauden adingabeei* buruzko txostenean.

Nolanahi ere, Arartekoak Lasarte-Oriako udalerrian antzeko kexaren ondorioz esku hartu zuen, ikasle etorkinak eskolatzeko orduan desoreka argia baitzegoen<sup>1</sup>. Egoera hartan adierazi zuen bezala, gomendioa nazioarteko hainbat erakundek, hala nola, Arrazaren Diskriminazioa Deuseztatzeko Batzordeak, Arrazakeria eta

---

<sup>1</sup> [Arartekoaren 2016NI-811-14 ebazpena, 2016ko otsailaren 25ekoa](#); horren bitartez, Lasarte-Oriako hezkuntza zentroetan ikasle etorkinak modu orekatuagoan banatzeko premiari buruzko kexa zela-eta abiarazitako esku-hartzea bukatu da (kexa espedientearen zk.: 811/2014/QC).





Intolerantziaren aurkako Europar Batzordeak eta Oinarrizko Eskubideen Europar Agentziak planteatutakoaren ildotik doa. Une hartan aipatutakoari jarraikiz, horiek zuzeneko eragina izan dute estatuan nahiz gure erkidegoan garatu diren ekimenetan.

EAEren kasuan, azkeneko ekimen azpimarragarria dagoeneko lehenengo aurrekarian aipatu den txosten diagnostikoa da. *“Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak”* izenburuko txostenaz ari gara.

Arartekoaren iritziz, dokumentuak honako birtualtasuna du: aurretiaz onetsitako planak eta programak kontuan hartzea, egungo egoeraren diagnostikoa gauzatu ostean, erronkak zehaztu eta esku hartzean proposamen berriak proposatu eta horietan aurrerapausoak emateko. Azken helburua lorpenetara iristea eta, laburbilduz, EAEko hezkuntza-sistema etengabe hobetzen dela ziurtatzea da.

Hala, txosten-diagnostiko honetan nabarmendutako erronka guztiak garrantzitsuak dira, baina, erakunde honen ustez, aztergai dugun kexaren ondoretarako batek merezi du arreta handiagoa eskaintzea. Ikastetxeen gizarte-konposizioan oreka sustatzearen eta eskola-sisteman kohesio gehiago bultzatzearen ingurukoa (R2) da. Horri dagokionez, txostenean hurrengo hau azpimarratu nahi izan da:

*“Testuinguru honetan, familien lehentasuna eskola aukeratzeko eta ikaspostuen esleipenaren arteko egokitasuna bereziki handia da. Hortaz, hezkuntza-plangintzako politikak eta tresnak indartu egin behar dira beste neurri batzuen bidez, zenbait eskola-eremutan sortzen diren desorekak saihesteko.*

*Gainera, plangintza- eta kontrol-tresnen eraginkortasuna ere aldatzen da tokiko testuinguruaren arabera. Izan ere, eraginkortasun hori zenbait faktoreren mende dago, hala nola: lurraldearen egitura soziala, bizitegien banaketa, ikastetxeen kokapena edo herritarren mugikortasun-jarraibideak. Horrek guztiak eskatzen du tokiko testuinguruetara iristeko plangintza- eta sarbide-politikak egokitzea eta tokiko erakundeekin lankidetzan aritzeko erronkari aurre egitea.”*

Erronka hau lortzeko neurri edo jarduera zehatzei erreparatuz gero, txostenak Ikasle Etorrinen Hezkuntza Arretarako II. Planean planteatutako hainbat ekimen azaltzen ditu, besteak beste, erakunde honek Lasarte-Oriaren kasuan aditzera eman zituenak (DBHko edota Batxilergoko ikastetxeak elkartzeko). Horrez gain, beste berri batzuk planteatzen dira, baina hizpide dugun kasuari dagokionez, bigarrena, hirugarrena eta bosgarrena nabarmendu behar dira:





- Gure ikastetxeen sarean dibertsitatea bidezko moduan banatzeko neurriak jarrai eta ebalua daitezzen bultzatzea.
- Eskola-plazak planifikatzean oreka aztertzea eta, bidezkoa bada, ikasle atzerritarren banaketa orekatua kontuan hartuta, eskolatze batzordeei argibide egokiak eskaintzea.
- Udaleko eskola kontseiluen funtzionamendua sustatzea; horretarako, batetik, beste administrazio batzuekin lankidetzan jardutea eta, bestetik, eskola-mapan kohesio eta oreka handiagoa lortzeari begira, hezkuntza-politiken elkarrekintza bilatzea.

Honaino iritsita, agian, lantzen ari garen gertaera nabarmendu beharko genuke: plangintza-erabakiak, itxuraz, irmoak izateaz gain (hala diogu, Hezkuntza Sailak 2019ko ekainaren 10ean aurkeztutako idazkiari erantzun behar diolako), praktikan 2019-2020 ikasturte honen hasieran gauzatu direla. Seme-alabek, bai 2018-2019 ikasturtean, baita 2019-2020 ikasturtean ere Jakintza Ikastola HLBHIPn eskolatzea hautatu duten udalerriko familiek beren nahiak ase dituzte, hirugarren lerroa irekitzeari eta itun berria izenpetzearen bidez finantzatzeari esker.

Beraz, erabaki horien ondorioz, etorkizuneko neurri edo jardun guztiek dagoeneko 2019-2020 ikasturterako onartu den plangintza izango dute abiapuntu.

Zer neurri edo jarduera erabil daitezkeen landuz gero, lehen berariaz aipatu dira txostenak aurrez ikusten dituen jarduera-proposamenak *“Atzerritar jatorriko ikasleen eskolatzea EAEko eskola-sisteman. Diagnostikoa eta esku hartzeko neurri berriak”*.

Horregatik, txosten honekin konpromisoa irmoa bada, erakunde honen iritziak, Hezkuntza Sailak, ikasturte honetan sortu den egoera aztertu ondoren, Ordiziako ikastetxeetan ikasleen banaketa orekatuagoan lagun dezaketen plangintza-neurriak ebaluatu eta kontuan hartu beharko lituzke eta, xede horrez, udalerriko berezitasunei erreparatu beharko lieke. Izan ere, Ordizian hezkuntzaren lehenengo etapatan hezkuntza-eskaintza ez dute bakarrik aipatu diren ikastetxeek egiten (Urdaneta HLHI eta Jakintza Ikastola HLBHIP), baita udal haurtzaindegiak edo eskolak ere. Zalantzarik gabe, alderdi hori azpimarratu behar da, EAE guztian ohiz udalak Otik 2 urtera bitartean esku hartzen baitu Haurreskolen Partzuergoaren bitartez. Era berean, aurreikuspenak kontuan hartu beharko lituzke. Horiei eutsiz, eskolatze-eskeak argi eta garbi egingo du behera, azkeneko urteetan jaiotze-tasa jaitsi delako.





Noski, analisia egitean eta plangintza-neurriei erreparatzean, Hezkuntza Sailak ez luke familien nahia baztertu behar. Ildo horri jarraikiz, 2019-2020 ikasturteari begira hartutako erabakiak azaldu eta justifikatzeko orduan hezkuntzaren arloko arduradunek adierazi duten bezala, otsailaren 3ko 21/2009 Dekretuak argi dio ikasleen plaza-eskaintza eta familien interesak bateratzen saiatu behar direla.

Dena den, aurreikuspen hori interpretatzen denean, hezkuntza-plangintzak ez dio bakarrik familiak adierazitako borondateari erantzun behar. Arestian aipatutakoa gogora ekartzen badugu, nahiz eta ikastetxea libreki hautatzeko eskubidea dagoen, hezkuntza-administrazioak ez du ezinbestez familiek hautatutakoa ase behar. Nolanahi ere, hezkuntza-plangintzaren edo -programazioaren egituraren eragingo duten alderdiek gidatu behar dute eta, aldi berean, horiek helburu jakinak lortzeko izango dira, besteak beste, ikastetxeen gizarte-konposizioan oreka handiagoa sustatzea. Aurrekoaren harira, neurri lagungarria da ikasle etorkinak modu barneratzailean eta orekatuan eskolatzea.

Bestalde, Hezkuntza Sailak eskolatze batzordeei argibide egokiak eman beharko lizkie, batez ere, funts publikoekin eutsitako ikastetxeetan, hala nola, Urdaneta HLHI eta Jakintza Ikastola HLBHIPn ezartzen den ratioaren gaintik taldeko eskolatze-plazen % 10 behar bezala kudeatzeko.

Gaiari eutsiz, kexa izapidetzen ari den ikasturtean, Sailak berak onartu du matrikula bizia kudeatzeko moduak banaketa handiagoa ekarri duela. Azaldutakoari jarraikiz, Urdaneta HLHI 2 urtekoen mailan hizkuntza-eredua aldatzea ez da nahikoa, aurrerantzean familiei Urdanetako B uredura bideratzen bazaie. Hortaz, argibideak eman behar dira, ahal den neurrian, eskolatze batzordeak ildo beretik erabakiak hartzeko.

Eta, amaitzeko, erakunde honen ustez, Hezkuntza Sailak udaleko eskola kontseiluaren funtzionamendua bultzatu beharko luke, ukitutako administrazio eta eragileen eta, ondorioz, Ordizian hezkuntza-plangintzan interesa dutenen topaketa- eta eztabaida-gune izan daitekeela kontuan hartuta. Ikasle Etorkinen Arretarako II. Planak dioenaren antzera, *beharrak eta administrazio-neurriak jarraitzeko kontseiluak topaketa-, eztabaida- eta diagnostiko-erakunde* modura sendotu behar dira.

#### 4. Ondorioak

Orain arte azaldutakoa laburbilduz gero, erakunde honen iritziz, hurrengoa ondoriozta daiteke:





2018-2019 ikasturterako ikasleak onesteko ohiko prozesuan familiek egindako onespren-eskaeren arabera, Ordizian 3 urtekoen mailan programatutako plazak nahikoak ez zirela argi gelditu zen. Hala eta guztiz ere, egoera horren aurrean, Hezkuntza Sailak Urdaneta HLHI eta Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendaritzek eta gurasoen elkarteek unitateak gehitzeko eskaerei ez zien erantzun eta onspren-prozesuaren ebazpenak berak sortutako egoera bideratu zuen. Hala, bigarren eta hirugarren aukerak esleitu ziren, bi ikastetxeen artean desoreka ez areagotzeko.

Dena den, Jakintza Ikastola HLBHIPko zuzendaritzak bigarren eta hirugarren aukeren esleipenak praktikan gauzatzea saihestu zuen, Hezkuntza Sailari baimena eskatu ondoren, plaza lortu ez zuten ikasleen matrikula formalizatu baitzuen, ikastetxe baimendua zela adierazita.

Ohiko onspren-prozesuan Jakintza Ikastola HLBHIPn eskolatzeko lehenengo aukera ez ase arren, ondoren matrikulatzeko erabakia hartu zuen eta Sailak beti defendatu du baimenari ezin ziola uko egin, izan zitzakeen ondorioen gorabehera, adibidez, itunik ez izatea. Nolanahi ere, erabaki hori ez da axolagabea suertatu, plangintza berria egin eta ituntzeko oinarritzat hartu baita eta, gainera, azkenean, 2019-2020 ikasturterako unitateak gehitzea erabaki baita.

Jakintza Ikastola HLBHIPn planifikatutako unitateak gehitzearen erabakia familien borondatean funtsatuta justifikatu da, baina bi ikastetxeen arteko desoreka areagotzen du.

Aurrekoari eutsiz, hezkuntza-programazioa zehaztean familien borondatea ezin daiteke irizpide bakarra izan. Hezkuntza Sailak neurtu behar du plangintza egituratzean irizpide horren ondorea. Familien borondateak ikasleak eskolatzean desorekara eraman dezake eta ikastetxeen konposizioan oreka eta eskola-sistemaren kohesio handiagoa sustatzearen helburua arriskuan jar daiteke.

Horregatik, Hezkuntza Sailak etorkizunean Ordiziako desoreka-egoera berriz landu beharko luke. Hala, ikasturte honetan sortutako egoera aztertu eta udalerraren berezitasunak kontuan hartuta, ikastetxeen artean ikasleen banaketa orekatuagoan laguntzeko plangintza-neurriak ebaluatu beharko lituzke.

Halaber, argibideak eman beharko lizkieke eskolatzeko batzordeei, ohiko onspren-prozesutik at eskolatu behar diren ikasleak (matrikula bizia) behar bezala kudeatzeko eta udalaren eskola kontseiluaren funtzionamendua bultzatu beharko luke.

Nolanahi ere, sailak berriaz ebazpena egin behar du, Urdaneta HLHIko zuzendariak eta gurasoen elkarteko buruak 2019ko ekainean aurkeztutako idazkiari erantzuteko eta interesdunei eskatutako dokumentazioa lortzeko erraztasunak emango dizkie.





Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari:

### **GOMENDIOA**

Ordiziako Haur eta Lehen Hezkuntzan funts publikoekin eusten diren ikastetxeetan 2019-2020 ikasturterako dagoeneko onartu diren plangintza-erabakien eragina ebaluatzea eta ikastetxe horien artean eskolatutako ikasleak banatzean oreka handiagoa sustatzen laguntzeko neurri zuzentzaileak hartzea.

